Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

**Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak, 2019ko apirilaren 30ean egindako batzarraldian, ondoko Erabakia hartu zuen:**

Ogasun eta Finantzetako Departamentuaren egoitza nagusia kokatzen den Errotaburu 2 eraikinak 24 urte dauzka gaur egun. Urteak pasa ahala, eraikuntzaren zenbait elementutan patologiak azaltzen joan dira. Aipatutako patologia gehienak banan-banako esku-hartzeak eginaz artatuak izan dira, baina beste zenbait, fatxadak kasurako, ezin izan dira artatu horretarako beharrezko diren esku-hartzeen ezaugarri teknikoak direla medio.

2016an Hego-ekialdeko fatxada eraberritzeko proiektuaren idazketa Antero-Fernández Arquitectos, S.L.P.ri eskatu zitzaion, baina proiektuko lana ez ziren gauzatu.

Denboraren joanean, Ipar-ekialdeko eta Ipar-mendebaldeko fatxadetako begi-bistan dauden hormigoizko elementuetan arazo berriak aurkitu dira eta horretarako, aipatutako Hego-ekialdeko fatxada eraberritzeko proiektuari eranskin bat egitea beharrezkotzat jo da, besteak beste, bertan azaltzen diren baliabide osagarriak erabili ahal izateko.

Errotaburu 2ko fatxadaren proiektuari eranskin baten idazketa egitea ere Antero-Fernández Arquitectos, S.L.P.ri eskatu zitzaion.

Proiektu hori, Ogasun eta Finantza Departamentuaren Udal Zergen Kudeaketa zerbitzuak ikuskatu du, esleituta baititu Ogasun eta Finantza Departamentuak kontratatzen dituen obra proiektuak ikuskatzeko funtzioak 2018ko urtarrilaren 21eko FA-OG-2018-0028 Foru Aginduaren bitartez.

Proiektuan ezarritako lanak burutzeko beharrezkotzat jotzen da 165 egun naturaleko epea eta aurrekontu hau izatea: 647.768,79 euro gehi 136.031,45 euro, %21eko BEZ gisa; guztira 783.800,24 eurokoa.

Ondorioz, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 159-1a

**El Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en sesión de 30 de abril de 2019, adoptó el siguiente Acuerdo:**

El edificio Errotaburu 2, sede del Departamento de Hacienda y Finanzas, cuenta actualmente con 24 años de antigüedad. Con el paso de los años, han ido apareciendo patologías en diferentes elementos de construcción del mismo.La mayoría de dichas patologías se han ido tratando con intervenciones puntuales, pero no se ha podido intervenir en todas por las características técnicas de las actuaciones necesarias a realizar, como es el caso de las fachadas.

En 2016 se encargó la redacción de un proyecto de rehabilitación de la fachada sudeste a Antero-Fernández Arquitectos, S.L.P, si bien el proyecto no se llegó a ejecutar. .

Con el paso del tiempo, se han detectado otras afecciones en los elementos vistos de hormigón de las fachadas noroeste y noreste, por lo que se ha considerado necesario realizar un anexo al mencionado proyecto de rehabilitación de la fachada sureste, con ánimo, entre otros, de aprovechar los medios auxiliares previstos en él.

La redacción del anexo al proyecto de rehabilitación de las fachadas de Errotaburu 2. se encargó asimismo a Antero-Fernández Arquitectos, S.L.P.

El proyecto completo ha sido supervisado por el Servicio de Gestión de Tributos Locales del Departamento de Hacienda y Finanzas, que tiene atribuidas las funciones de supervisión de proyectos de obras cuya contratación corresponde al Departamento de Hacienda y Finanzas de acuerdo con la Orden Foral FA-OG-2018-0028, de 21 de enero de 2018.

El plazo de ejecución será de 165 días naturales y un presupuesto de 647.768,79 euros, más 136.031,45 euros en concepto de 21% IVA; en total, 783.800,24 euros.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 159-1a) de la Ley

artikuluan dioenari jarraikiz, eta kontratuaren zenbatekoa ikusirik, prozedura ireki sinplifikatuaren bidez esleituko da.

Honenbestez, Diputatuen Kontseiluak, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta gaia eztabaidatu ondoren,

**ERABAKITZEN DU**

**Lehenengo-** Onartzea Donostiako Errotaburu 2ko eraikineko fatxaden birgaitze eta konponketa obren exekuzio proiektua. Lizitazio oinarrizko aurrekontua honako hau da: 647.768,79 euro gehi 136.031,45 euro, %21eko BEZ gisa; guztira 783.800;24 euro; lanak burutzeko epea 165 egun naturaleko izanik.

**Bigarren.-** Aipatu proiektuko obrak gauzatzeko kontratazio espedientea onartzea, baldintza administratibo berezien agiria barne duena; eta kontratua esleitzeko prozedura ireki sinplifikatuari hasiera ematea.

**Hirugarren.-** Baimena ematea 783.800,24 euroko gastua egiteko, barne hartzen dituena lan proiektuko lanak burutzeko zenbateko osoa eta dagokion BEZa, aurrekontuko 0601.010.610.03.00.2019 partidaren kargura.

**Laugarren.-** Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuari ahalmena ematea: kontratua esleitu eta formalizatzeko; eta dagokion gastua baimentzeko; eta kontratua behar bezala gauzatzeko egokiak gerta daitezkeen egintza, ebazpen eta erabakiak hartzeko.

*Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, lizitazio iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.*

*Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKOERREKURTSOA aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita HILABETEKO EPEAN. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko*

9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público y a la vista de la cuantía del contrato, éste se adjudicará por procedimiento abierto simplificado.

Por lo expuesto, el Consejo de Gobierno Foral, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, previa deliberación,

**ACUERDA**

**Primero.-** Aprobar el Proyecto rehabilitación y reparación de fachadas de la torre de Errotaburu 2. de San Sebastián, con un presupuesto base de licitación de 647.768,79 euros, más 136.031,45 euros en concepto de 21% IVA; en total, 783.800,24 euros y un plazo de ejecución de 165 días naturales.

**Segundo.-** Aprobar el expediente de contratación para la ejecución de las obras del citado proyecto, que incluye el correspondiente pliego de cláusulas administrativas particulares; y disponer la apertura del procedimiento abierto simplificado, para la adjudicación del contrato.

**Tercero.-** Autorizar un gasto de 783.800,24 €, que comprende el importe total de la ejecución del proyecto de obra y el IVA correspondiente, con cargo a la partida presupuestaria 0601.010.610.03.00.2019.

**Cuarto.-** Facultar al diputado foral de Hacienda y Finanzas para la adjudicación y formalización del contrato, y autorizar el gasto correspondiente, y para adoptar cuantos actos, decisiones y resoluciones sean necesarias para su correcta ejecución.

*Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastian, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio de licitación.*

*No obstante, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-*

*auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.*

*administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.*

**Eta halaxe jakinarazten dizut behar diren ondorioetarako.**

Donostia, 2019ko apirilaren 30ean

**Lo que le traslado a Vd. para su conocimiento y efectos.**

San Sebastián, 30 de abril de 2019

**Ogasun eta Finantza Departamentuko idazkari teknikoa**
**La secretaria técnica del Departamento de Hacienda y Finanzas**

**María Jesús Pérez Garciarena**